

LOMCE HEZKUNTZA LEGEA

Gizapedia



- LOMCE akronimoa da: Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa da.
- Euskaraz, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoa.
- Espainia mailako lege organiko bat da, autonomia estatutuak eta hauteskunderi buruzko legeak bezalaxe. Bere aprobazio, aldaketa eta derogaziorako Kongresuko gehiengo absolutua behar da, beraz.
- Lege organikoa da hezkuntza arloko funtsezko puntuak ikutzen dituelako, besteak beste komunitate autonomikoen hezkuntza eskumenak.
- Bereziki LOGSE (PSOE, 1990) eta LOE (PSOE, 2006) legeak ikutzen ditu.

- LOMCE legea 2013 urtean onartu zen Espainiako Alderdi Popularraren (PP) eskutik.
- Jose Ignacio Wert hezkuntza ministroa zen orduan eta horregatik Wert legea ere deitu izan zaio.
- PP izan zen legearen aldeko botoa eman zuen bakarra. Beste alderdi guztiak aurka agertu ziren, gerora beste alderdi txiki batzuk horren derogazioaren aurka agertu baziren ere.
- Gizarte zibilean oposizio handia jaso zuen: legea sektareoa, diskriminatzailea eta atzerakoia dela kritikatu da. Legearen aurka aldarrikapen eta manifestazio ugari izan ziren. Hezkuntza arloko bi greba orokor ere egin ziren horren aurka. Konstituzioaren aurkakoa izateagatik errekurtsio batzuk jarri zitzaizkion.

- Aprobazioa eta gero, LOMCE legearen puntu bakan batzuk aplikatu ziren. Orokorrean, azkenean aplikatu ez den legea da.
- 2016 urtean derogatu zen PSOE eta beste alderdi batzuen eskutik, baino bakarrik praktikan aplikatu ez diren puntuei buruz.

Legearen hitzaurrean asmo, xede eta helburu hauek ezartzen dira:

- Eskola-porrot tasa gutxitzea.
- Nazioarteko mailarekin alderaturik, errendimendu akademikoa hobetzea, bigarren hezkuntzako tituludunen tasak eta aparteko ikasleen kopuruak gehituz.
- Hezkuntza lan-merkatura egokitzea.
- Ekintzailletza bultzatu ikasleen artean.

Aurreko betetzeko hau da legeak ezartzen duena:

- Hezkuntza-maila bakoitzaren bukaeran kanpoko azken ebaluazio estandar eta nazio mailakoak, informatzailea lehen hezkuntzaren bukaeran, baino hezkuntza-mailako titulua lortzeko bigarren hizkuntzaren eta batxilergoaren bukaeran (errebalidak izenekoak).
- Bi aukera DBHko azken kurtsoan: ikaslea batxilergora eta lanbide heziketara bideratzen dutenak hurrenez hurren.
- Tronkalak diren irakasgaietan, estatuak edukiak guztiz zehaztu eta arautzea, komunitate autonomoek dituzten eskumenak murriztuz horrela. Irakasgai tronkal horien zerrenda oso zabala da, eta irakasgai nagusi gehienak hartzen ditu.

Aurrekoa betetzeko hau da legeak ezartzen duena:

- Hezkuntza-maila bakoitzaren bukaeran kanpoko azken ebaluazio estandar eta nazional bat, informatzailea lehen hezkuntzaren bukaeran, baino hezkuntza-mailako titulua lortzeko bigarren hizkuntzaren eta batxilergoaren bukaeran. Ez da aplikatu eta LOMCEren puntu kritikatuenetakoa izan da.
- Bi aukera DBHko azken kurtsoan: ikaslea batxilergora erta lanbide heziketara bideratzen dutenak hurrenez hurren.
- Tronkalak diren irakasgaietan, estatuak edukiak guztiz zehaztu eta arautzea, komunitate autonomoek dituzten eskumenak murriztuz horrela. Irakasgai tronkal horien zerrenda oso zabala da, eta irakasgai nagusi gehienak hartzen ditu.
- (jarraitzen du →)

Aurreko betetzeko hau da legeak ezartzen duena:

- Gaztelera eskaintzen diren iraskagaien derrigortasuna.
- Bigarren atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza ezartzea.
- Erljioa irakasgaia balio akademikoa ematea.
- Zuzendaritza-taldearen eskumenak gehitzea, Eskolako Kontseiluaren kaltetan.
- Eskola pribatua hezkuntza-askatasunerako erakundetzat hartzen du, eta horrela haren aldeko abantailak ezartzen ditu: zoru publikoan ikastetxe pribatuak eraikitzeko aukera, zentro publikoetan plazak ez ziurtatzea eta sexu-segregazioa duten eskolak kontzertatuak izateko aukera izatea.